

«MODU-DENBORAZKO EUSKAL SISTEMAREN ATAL BAT (POTENTZIALAK)»

P.O. Txanturia (Canturia)

Artikulu hau idaztean neure buruari ezarri diodan helburua hara zer den: Modu-denborazko euskal sistemaren irudikapen edo errepresentazio (eskema) bat aurkitzen saiatzea. Irudikapen honek, alde batetik, bat etorri beharko luke gramatikazko izakerarekin eta bestetik, ikasprozesuen eskakizunekin, hau da, potentzialaren saila irakaskuntz ikaskuntzarako errazago bihurtu beharko luke, batez ere ikasliburutuan.

Euskal aditza ikasterakoan aurkitu ditudan oztipoen esperientzian oinarritzen da eta, zailtasuna ez dator berezko izatetik soilik, baizik eta gramatikazko bibliografian bertan irudikatze erabiltzen diren era edo moduetatik ere bai. Txanturiaren ustez, horrela ulertzen da euskal potentzialen ugaritasuna.

Artikuluaren funtsa azkenean datorren eskemak jasotzen du.

Idea nagusia, banaketa objektibo bat egitea da: potentziala bi azpisail paralelotan banaturik, lehena indikatibotik hurbil legoke eta bigarrena baldintza-eratik. (Hau ez dut jotzen orijinaltzat, zeren Lafonek ere erabili bait zuen «potenciel condicional» esamoldea, baina zoritxarrez nik ezagutzen dudana bibliografian oso gutxi hedaturik dagoena).

Lehenengo azpisailaren ezaugarria, orainaldia eta iragana, gramatika-denborak izatea da; bigarrenarena, azpimoduak izatea baldintza-erak dituenak bezalakoak.

Lehenengo azpisailari «*indikopotenzial*» (indikatiboko potentziala) deitu lerkioke eta bigarrenari «*potenzial kondionala*», Lafonen arabera.

Iruzkina:

Bai orainaldiko eta bai iraganeko denboran indikatiboko potentzial sintetikoak ekintza burutzearen posibilitatearen berri ematen du soilik («Ibiltzeko gauza naiz, ibiltzeko gauza nintzen»). Hegoaldeko euskalkietan, halere, ez da erabiltzen modu jakin hau zentzu hauetan eta Euskara Batuan beronen iraupena ere aski problematikoa gertatzen da. Potentzial hau, aipaturiko eremuan,

sarritan etorkizun denborazko zentzuarekin erabiltzen da, eta honen lekukotasunik ere agertzen da textu zaharretan.

Eta neurri batean hau dena erlazioaturik dago indikatiboko potentzial analitikoarekin bere bi denboretan (ibili ahal naiz, ibili ahal nintzen). Komentziozko potentzialak hiru dira, eta I, II, III zenbakiez markatu ditugu potentzialak, denak daude modaltasun-maila hutsean eta ez dute denborazko banaketarik, denbora-ezaugarririk edo mugapenik. Baldintza-erako batek (II) duen ezaugarri berbera du eta berenekiko oso hurbileko, antzeko bait da edo bat datorrela esan bait daiteke.

(Gure eskeman azpimodu kondizionalak ez daude ezarrita «denboraz kanpokoak» bailiren, baizik eta indikatiboko iraganaren aurrez-aurre, baina helburu bakarrarekin, lehenak bigarrenetatik, formari dagokionez nola sortzen diren erakusteko).

Jokaera sintetikoaren alorrean komentziozko potentzial bakarra dago (I), bakar bakarra da era berean beronen kidea ere baldintza-eraren sailbarruan (nen-bil-ke) ikus baldintza (nenbilke). Errealtasun ez-errealtasun mailari dagokionez ez dago kontrajartzerik hemen, beraz, eta posibilitate bakarra da erreal bezala gertatzea eta horretan berezten dira printzipioz komentziozko potentzial (sintetiko) hau beronen kideak diren analitikoak (II eta III).

Azken hauek bi direlako, horregatik gertatzen da posible hemen, jokaera analitikoaren alorrean, posibilitatea erreal gisa eta ez-erreal gisa adierazi-ahal izatea, hau da, hemen badago baldintzazko potentzialen oposizio erantzukidea [ibil ninteke (yo podría ir)] posibilitate erreala [ibil nintekeen (yo habría podido ir) ikus baldintza-era: ibiliko ninteke (sic) (yo iría), posibilitate erreala (ibiliko nintekeen) edo ibili izango nintzen (yo habría ido) posibilitate ez-erreala]. Beraz, komentziozko potentzial irrealak (III) adierazpen analitikoa bakarrik du.

Sintesiaren alorrean komentziozko potentziala (I) baldintzazkoaren forma berekoa da; analisiaren alorrean komentziozko potentzialak (II) «ia» baldintzazkoaren forma bera du eta alde guztia «ko» bukaera izen formari eranstea dago baldintza-eran; azkenik, alor berean, komentziozko potentzialak (III) indikatiboko potentzialaren forma bera du iraganeko denboran. Beraz ez da nahastu behar:

a) «Nenbilke» (podría ir) —erako formak, gehienetan baldintzazko periodoaz kanpo direnak eta «nenbilke» (yo iría)-erako formak, normalean baldintzazko periodoak egiteko erabiltzen direnak.

b) «Ibili ninteke (podría andar) eta «ibiliko ninteke» (posibilitate errealak) eta «ibiliko ninteke» (andaría, iría)-erako formak (posibilitate erreala bera), erabilpen-distribuzio berdina dutenak, aurreko kasuan bezalaxe.


c) «Ibili nintekeen» (yo habría podido ir, andar) (posibilitate irreala) eta «ibiliko nintekeen» (yo pude-podía haber ido) (posibilitatearen aitortpena iraganen); forma hauen baldintzazko kideek *tza* oinarria dute (ibiliko nintzakeen).


Tratatzen ari garen modu-denborazko euskal sistemaren (MDS) paradoxa-rik handiena, ez datza aurkeztu dugun forma berekotasunean, baizik eta po- tentzial irrealak (III) indikatiboko potentzial ohizkoaren forma bera izatean, zeinak adierazten bait du egintza burutzea posible zela iraganean «ibili ninte- keen» (yo habría podido ir) (potentzial irreal) eta «nintekeen» (yo pude ir) (indikatiboko potentziala iraganekeo denboran): izan ere, modaltasun maila kontutan hartuz gero, logikoa litzateke forma berekotasuna azpimodu hauetan ez gertatzea, baizik eta indikatiboko potentzialean iraganekeo denboran eta ko- mentziozko potentzial errealean artean. Azkeneko «nintekeen» (yo pude- podía ir) horrek «en» forma izateak despistatu egiten du, zerbait irreal delat pentsatzera bultzatuz, baldintza-era irrealan aurkitzen duguna bera [ibiliko nintzatekeen (yo habría ido)].

Beraz, oso arreta berezia eskatzen dute *nintekeen* duten formek, zeren ze- haro desberdinak bait dira modaltasun mailari dagokionean. Ez da haririk gal- du behar *en* forma-bukaerarengatik (nintekeen forma)n, baizik eta gogoan izan bukaera hau badagokiola indikatiboko potentzialari iraganekeo denboran (Yo pude ir).

Ondoren ipintzen dugun bibliografia azken-orduan erabili duguna besterik ez da. Ez dugu aipatzen potentziala inperatibotik bereztearen arazorik.

Eskerrak ematen dizkiogu X. Kintana akademikoari eskuratu digun la- guntzarengatik.





cf. Halaber «ibili ahal naiz» (puedo andar), non bait dago hitz berezia. (Poder, posibilidad)

cf. Halaber «ibili ahal nintzan» posibilitatea adierazten duen «ahal» hitzarekin

cf. Halaber «ibili ahalgo ninteko» (posibilite erreal) «ahal» hitzarekin.

BIBLIOGRAFIA

1. LAFON, R.: *Comportement syntaxique, structure et diathèse du verbe basque*, *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, 1954, Fasc. I, pp. 190-220.
2. *Euskal Aditz Batua* (ed. Euskaltzaindia), San Sebastián, 1979.
3. LAFFITE, P.: *Grammaire basque*. Navarro-labourdin litteraire, Bayonne, 1962.
4. GEREÑO, X.: *Método del Euskera*, Bilbao, 1976.
5. ECHAIDE, J.M.: *Desarrollo de las conjugaciones eúscaras*, San Sebastián, 1944.